

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

EBAZPENA, 2020KO ABENDUAREN 3KOA, HABEREN ZUZENDARI NAGUSIARENA, 2019-2020 IKASTURTEAN HABEREN C1 ETA C2 EUSKARA-MAILAK EDO HORIEN BALIOKIDEAK EGIAZTATU DITUZTEN IKASLEEI DIRULAGUNTZAK EMATEN DIZKIENA.

HABEren zuzendari nagusiaren 2020ko uztailaren 7ko Ebazpenaren bidez 2019-2020 ikasturtean HABEren euskara-mailak edo horien baliokideak gainditu dituzten ikasleei dirulaguntzak emateko prozedura eta baldintzak arautu eta dagokion deialdia egin zen. Ebazpena uztailaren 24ko EHAAren argitaratu zen.

Aipatu deialdi horretan zehaztutako prozedura eta irizpideak aplikatu ondoren eta deialdi bereko 6. eta 7. oinarriek ezarritakoari jarraikiz, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- HABEren C1 eta C2 mailak edo baliokideak egiaztatu eta I. eranskinean jasotzen diren ikasleei adierazitako dirulaguntza ematea, dirulaguntzaren zenbateko osoa 201.523,48 euro delarik. Aipatu laguntza-kopuruak finkatzeko kontuan hartu dira eskatzaile bakoitzak egiaztatutako mailak, bakoitzak euskaltegietan edo autoikaskuntzarak zentro homologatuetan ordaindu eta egiaztatu dituen matrikula-kopuruak, HABEk aurreko urteetako deialdien bitartez diruz lagundutako ikastaroak eta beste Herri Administrazioetatik ikasleak eskuratu dituen dirulaguntzak, azken hauek deialdiaren 8. oinarriak dioenari begira.

Bigarrena.- II. eranskinean aipatzen diren ikasleei dirulaguntzarik ez ematea, bertan azaltzen diren arrazoiak direla-eta.

Hirugarrena.- Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoaren iragarki-taulan (<http://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa>) argitara emanez eta, emandako dirulaguntzen publizitateari dagokionez, HABEren web orrialdean argitaratuz (www.habe.euskadi.eus).

Laugarrena.- Ebazpen honetako I. eranskinean esleitutako laguntzak ordaintzeko agindua ematea.

Bosgarrena.- Interesdunei jakinaraztea administrazio-bidea agortzen ez duen Ebazpen honen aurka egiteko, gora jotzeko errekurtsioa jar daitekeela Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, Ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Donostia, 2020ko abenduaren 3an.

HABEren zuzendari nagusia,
JOKIN AZKUE ARRASTOA.